

diskoa



Lisabo

Egun bat nonahi ■ Acurela

Ezarian (Esan Ozenki) laudatuarekin zur eta lur utzi gintuen Lisabo taldeak. Irungo taldearen lehenengo disko hartako amorrua, tristura eta ezinegona hain ziren ikaragarriak, non lehertzen zirenean zuzenean sabelean jotzen baikintuzten, sentimenduak lehertzen diren lekuan. *Ezarian*-ek merezitako oihartzuna izan zuen —ez bakarrik Euskal Herrian—, eta hori zuzeneko kontzertu basati eta mingarrietan islatu zuen ondoren — Shipping News taldeko Jason Noble eta Jeff Mueller ere taldearen jarraitzaile sutsu bihurtu ziren kontzertu haien ondorioz—.

Ezarian-ek oso goian jarri zuten Lisaboren maila, baina Irungoek erronkei aurre egiteko prest daudela erakutsi dute behin eta berriro. Dagoeneko hasi dira beren bigarren diskoa izango dena prestatzen, eta bitartean, hiru abestiz osatutako EP apart eta hunkigarri hau kaleratu dute (*Egun bat nonahi*), Acurela disketxearen bitartez. Joan den uztailan Donostian eginiko Plaza jaialdirako prestatutako *Egun bat nonahi* ikuskizunean oinarrituta, Lisabok Martxel Mariskalen hitzak atondu ditu, egun bateko bizitzari musika jarritz. Hiru abesti besterik ez dira (ia 18 minutu), baina taldeak urte eta erdiko epe laburrean egin duen bidea erakusten du. *Gau minean* gitarra apunte txiki batzuekin hasten da, baina Maiteren txeloa eta erritmo atala lehenengo lerrora iritsi eta Javiren ahotsak lehenengo hitzak botatzen dituen unetik beretik, *in crescendo* doa kantua, gitarra, baxu, bateria, oihu eta txeloz hornituriko sinfonia ikaragarria

osatu arte («beldurraren izena ez dela gaua, eguna baino, gogorazterea»). Beste ostiko bat sabelera. *Goiz euria*, bere hitz errezitatuarekin, core-tik urruntzen da, giroa indartu nahian; eta, azkenik, *Egunaren begietan*-ek, angustia, ezinegona, amorrua, gorakadak eta beherakadak biltzen ditu zortzi minutu beldurgarritan.

Hiru abesti besterik ez dituen arren, *Egun bat nonahi*-k Lisabogure artean dagoen talderik emozionalena dela erakusten du. Disko berriaren zain irrikan egoteko arrazoi bat gehiago. ■ **mikel lizarralde**




Three 4 Tens

Change is on its way ■ Rainbow Quartz / Houston Party

AEBetako Three 4 Tens taldearen lehenengo disko honek iraganeko usaina du kantu guztietan. Izan ere, 35 urte atzera egin, eta psikodeliaren unerik gozoenean kokatzen gaitu *Change is on its way*-k. Three 4 Tens Syd Barretten Pink Floyd eta The Byrdsen artean dabil, Gram Parsons country psikodeliari bizkarra eman gabe. Horrek esan nahi du lan honetan ahots harmonia ederrak, gitarra joko bihurriak eta teknologiaren erabilpen primitiboa —zinta grabatuen soinuak, adibidez— aurkituko ditugula.

Diskoa joan den urtean kaleratu zuten AEBetan, eta orain hiru abesti berriekin berrargitaratu dute gure artean. Psikodelia arina (*A red shirt today*), The Animals-en *rhythm & blues*a (*Happy new year*) eta 60ko hamarkadako popa (*Sugar creek road*) gustuko dituenak gozatu du lan honekin, kantuek ezberberrik eskaintzen ez duten arren. ■ **mikel lizarralde**



Joe Grushecky

Fingerprints ■ Buffalo

Pittsburgh hiriko rockero hau ez da heldu berria: **Springsteen, Bob Seger, John Mellencamp** eta antzekoen belaunaldikoa den kantari eta gitarra jolearen hamabigarren albuma dugu oraingoa. Baina haxe dugu bere ohiko The Houserockers banda gabeko lehenbizikoa. Arrazoiak? Honako kantu hauek ezberdinak eta pertsonalagoak dira; eta, horren ondorioz, bestelako musikariak behar zituen. *You and tonight* eta *Remember it* hasierakoek bere taldearen estiloa gogorazi arren, berehala abiatzen da esparru ezezagunen bila: soul zuria deitzen dio Joe kantatzeko eta konposatzeko moduhoni, rock-and-roll hutsa bazter batean utzi ondoren. Entzun arretaz *Lucky man* (60ko hamarkadako rhythm & blues beroa), *Easy money* funk elektronikoa edo *Spanish blood* lasaia, aldaketa horiek egiaztatzen. *Talk is cheap* kantuan indie rockaren bidean abiatzen da, **U2**ren moduan, ahots distortsionatuaz eta **13** urteko **Johnny** semearen bateriaz. Eta baladen artean, primerakoak dira *That's all I want from you*, **Jimmy Webbi** dedikaturiko *Rainy day in Pittsburgh* (**Van Morrison**en aireak dakartzkigu pieza honek) edo agurreko *Hey Lefty*, aitaginarreba zenari dedikaturikoa, harmonika eta guzti. Bere ahotsak etxeko marka gordetzen du: latza batzuetan, garratza beste batzuetan, baina adierazgarria beti. Rock-and-roll azkarra, bizia eta garaikidea, **Pittsburgheko** laguna ezagutzeko hamalau kantu apropos. ■ **joseba martin**

antena


jarrita

Ertz jaialdiaren egitaraua dagoeneko prest dago. Berako arte guñeak antolatutako bertze musiken jaialdia, ekainaren 6tik 9ra egingo da, Berako kultur etxean, eta musikaz gain, bestelako arte adierazpen batzuk ere jasoko ditu. Ekainaren 6an hasiko da jaialdia, Mateo Austinen bideo esperimentalekin, eta hurrengo egunean, ostiralean, musika emanaldia izango da **Alejandro & Aeron** (Espainia-AEB), **A.F.R.I Studios** (Alemania), **Alku** (Bartzelona), **Tom Steinle** (Alemania) eta **Tzesne** (Euskal Herria) taldeekin. Larunbatean, **Oren Mabarchi** (Australia), **Alex Mendizabal** (EH), **Bassifondi Orchestra** aka **Chris Blazen** (Italia), **John Sharp** aka **Mr Natural** (Alemania), **Akuzazte** (EH) eta **Mattin** (EH). Ekainaren 9an, azkenik, **Curca Chiusa** (Italia), **IXI Software** (EH-Erresuma Batua) eta **Amanita Recordsen** jukeboxa izango dira, leku berean. Informazio gehiago eskuratzeko: www.ertz.net.

Uztailaren 19tik 21era, **Isladencanta** jaialdiaren bigarren ekitaldia egingo da, Mallorcan. Dagoeneko, hainbat izen aurreratu dituzte: **Oasis**, **The Charlatans**, **Mercury Rev**, **The Soundtrack Of Our Lives**, **Lemon Jelly**, **Bertrand Burgalat**, **Millionaire**, **Ladytron**... Informazio gehiago: www.isladencanta.com

Jauko Barik taldeak maiatzaren amaieran kaleratuko du bere bigarren diskoa izango dena: **BZZB... eta goxatu**. Doinu gogor eta melodikoak bilduko ditu.

binilzko oroitzapenak



1988

Bidehuts eta etxehuts

Artista: Bap!

Disketxea: Basati Diskak

Beste lan batzuk: *Babarruna eta aza popularra* (Maketa, 86), *Zuria Beltzez* (Basati Diskak, 92), *Lehertzeko garaia* (Esan Ozenki, 94), *...ta beste la ondo?* (bideoa, Esan Ozenki, 96)

Bap! taldearen lehenengo diskoa klasiko bilakatu da. Ez da batere erraza disko horretako kanturen bat besteen artean nabarmentzea. Esaterako, *Atzera Begira*, *Plastikozko jantziak* eta *Azkeneko Anarkista* ezinbestekoak dira. Euskal He-

rriaren egin den hardcoreari buruz hitz egiteko orduan, ezin da Bap! alde batera utzi. 80ko hamarkadan, euren jaioterriko, Andoaingo, gaztetxea atzerriko taldeen ezinbesteko bilgune bilakatu zen. Ez da kasualitatea, beraz, Bap! Andoainen jaio izana, eta punketik haratago joz, Europako hardcore korronteak bereganatzen lehenetarikoa izatea. Kontinente zaharretik zetozen eraginak hartu, eta euren sustraiei uko egin gabe, **Drake**, **Txanpi**, **Andreu** eta **Eneko** hardcorea euskaraz egiten hasi ziren. Txunta-txunta-txunta erritmo azkarra oinarri hartu zuten baxuak eta bateriak, **Eneko**ren ahotsak garrasi eta ulu oso ulergarriak uztartzen zituen, eta *Drakeren* gitarak oso soinu pertsonala zeukan, erraz bereiz zitekeena. Kantu azkarrak eta zuzenak, hori bai, baina tarteka, melodia

eta lelo itsaskorrak zituztenak.

Hitzak egiteko orduan, euskara eta gaztelania txandatu zituzten, eta garapen basatia (*Derrecho a la naturaleza*, *Tturrutukuttu*, *Plastikozko jantziak*), eliza (*Ezereza*), Euskal Herriko egoera eta gobernua (*Atzera begira*, *Palabras de engaño*), sistema (*Azkeneko anarkista*) eta beste batzuk izan zituzten berbagai. Eskoletan erakutsi beharko lituzkete horietako hitz batzuk!

Disko hau kaleratu, eta isilune baten ondoren, 1992an, taldekide berriekin *Zuria Beltzez* diskoa kaleratu zuten. Batzuek Bap! Brains deitura jarri zieten, eta ez zuten disko berria ondo hartu. Baina denborak arrazoiak eman zion taldeari, *Zuria*... disko borobila delako. Beste egun batean hitz egingo dugu disko horretaz, merezi du eta!

■ **iker barandiaran**

Bilbo San Vicente, 2 48001 Bilbo - Tel: 94 494 46 25		Kafe ANTZOKIA		Ondarroa Iparragirre 10, 48700 Ondarroa - Tel: 94 683 41 41	
16 osteguna 22:00 • PEACE MONKEYS Y SU PUTA MADRE CABARET BAND Au: 6,00 € Txart: 8,00 € LAGUNAK: 4,00 €	DOCTOR DESEO Sa: 8,00 € LAGUNAK: 4,00 €		17 ostirala 23:00 • O'FUNK'ILLO • Nice Family Trip Au: 9,00 € Txart: 11,00 €	JOSEBA TAPIA Sa: 5,00 € Txart: 6,00 € LAGUNAK: 3,00 €	
22 asteazkena 20:00 • URBELTZEN DANTZA GANBARA Doako sarrera	LAGUN ARTEAN KANTARI Doako sarrera		18 larunbata 22:30 • LAGUN ARTEAN KANTARI Doako sarrera	22 asteazkena 20:00 • LAGUN ARTEAN KANTARI Doako sarrera	
23 osteguna 22:00 • π L.T. • El Agente Naranja Au: 6,00 € Txart: 8,00 € LAGUNAK: 4,00 €	ONDARROAKO ROCK LEHIAKETAREN FINALA Doako sarrera		24 ostirala 23:00 • ONDARROAKO ROCK LEHIAKETAREN FINALA Doako sarrera	24 ostirala 23:00 • ONDARROAKO ROCK LEHIAKETAREN FINALA Doako sarrera	

www.kafeantzokia.com